

NAFARROAKO RURAL KUTXAKO KAPITALERAKO EKARPENEI BURUZKO INFORMAZIO-AGIRIA

1. SARRERA

Agiri honek Nafarroako Rural Kutxaren (hemendik aurrera, “**Entitatea**”) kapital sozialerako ekarpenen izaera eta ezaugarriei buruzko informazio zehatza ematea du xede, bai eta, harpidetu edo erosiz gero, kontuan hartu beharreko arrisku-faktoreena ere.

2. ENTITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Nafarroako Rural Kutxaren estatutuek ezarritakoak agintzen du Entitatea, maiatzaren 26ko Kreditu-kooperatibei buruzko 13/1989 Legeak xedatutakoarekin, urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuak onetsitako haren araudiarekin, kreditu-entitateen jarduera, oro har, erregulatzen duten arauekin eta, modu osagarrian, uztailaren 16ko Kooperatibei buruzko 27/1999 Legearekin bat.

Nafarroako Rural Kutxak Iruñean du helbidea (Foruen plaza, 1), eta 1946ko urtarrilaren 23an eratu zen, 1942ko urtarrilaren 2ko Lankidetzari buruzko Legearekin eta haren aplikazio-erregelamenduarekin bat, eta Lan Ministerioan inskribatu zen (2.163 zenbakia); bere estatutuak 1974ko Kooperatibei buruzko Lege Orokorrera eta azaroaren 16ko haren 2.710/78 zenbakiko aplikazio-erregelamendura; Sozietate Kooperatiboan Inskripzio Liburuan inskribatuta dago (156 folioa eta 9 zenbakiko idazpena), 344/S.M.T. zenbakia jaso zuela entitateak; Nafarroako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago (11 liburukia, 175 folioa, NA-183 orria).

Estatutuak entitateko webgunean argitaratuta daude.

Entitateren xede soziala haren bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak asetzea da, kreditu-entitatei berezko zaizkien jarduerak gauzatzuz.

Entitatearen helbide soziala Iruñean dago.

3. EKARPENEN EZAUGARRI NAGUSIAK ETA IZAERA

3.1. Kapital soziala osatzen duen parte

Bazkideen ekarpenek osatzen dute Entitatearen kapital soziala. Kapital soziala izaera aldakorreakoa da, eta gutxienezko ezarpen hau du, guztiz harpidetu eta ordainduta: lau koma laurogeita bat milioi euro [4,81 milioi euro].

3.2. Gutxienezko zenbatekoak eta mugapenak

Bazkide guztiek gutxienez ekarpen-titulu bat guztiz harpidetu eta ordaindu beharko dute. Bazkidea pertsona juridikoa denean, ordea, ekarpenak gutxienez bi titulukoak izan beharko du.

Bazkide batek ezin izango du eduki edo kontrolatu, zuzenean edo zeharka, ekarpen guztien % 2,5 edo % 20 baino gehiago, pertsona fisikoei eta pertsona juridikoei dagokienez, hurrenez hurren. Halaber, sozietate kooperatiboaren izaera ez duten pertsona juridikoen ekarpen guztiek ezin izango dute inoiz izan kapital sozialaren % 50 baino gehiago. Aipatutako mugek ezarritakoak baino ekarpen gehiago erosiz gero, gehiegizko partaidetzatzat jo, eta bertan behera utziko dira bazkidearen eskubide politikoak.

Atal honetan aipatutako mugak ez dira kontuan hartuko baldin eta ekainaren 26ko (EB) 575/2013 Erregelamenduari 113.7 artikuluan ezarritako babes-sistema instituzionalerako baten esparruan *ex ante* eraturitako berme-funts pribatu batek parte hartzen badu, edozein bitartekoren bidez, Entitatearen kapital sozialerako; Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, kreditu-entitateen eta inbertsio-enpresen zuzentzairetarik buruzkoa da, eta 648/2012 zenbakiko (EB) Erregelamendua aldatzen du.

Halaber, kreditu-entitateak eta inbertsio-zerbitzuko enpresak berreskuratu eta berregituratzeari buruzko ekainaren 18ko **11/2015 Legean** xedatutako neurrietakoren bat ezartzen denean ere ez dira kontuan hartuko aipatutako mugak.

3.3. Entitatean gutxienez eman beharreko denbora

Alta egin eta gutxienez bost urte eman beharko ditu bazkideak Entitatean, eskatutako baja arrazoitua denean izan ezik.

Edozein bazkidek eska dezake baja, berak eskatuta, Entitatetik. Nahi duenean egin dezake, eta, horretarako, aldezturik eman beharko dio haren berri Kontseilu Errektoreari, idatziz, bajak eragina izan baino 3 hilabete lehenago; epe hori betetzen ez bada, kalte-galderak ordaindu beharko ditu.

3.4. Ordaintzeko modua

Ekarpenak eskudirutan ordainduko dira kasu guztietan.

3.5. Enbargaezintasuna

Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inolako eskubiderik izango Entitatearen ondasunen gainean, ez eta bazkideek kapital sozialera egindako ekarpenen gainean ere, enbargaezinak baitira azken horiek.

3.6. Ordainketa

Entitateko erabaki-organoek ekarpenei aplikatu beharreko interes-tasa onetsi dute. Egun onetsitako tasa % 1 da (% 1,00376 UTB). Dena dela, ekarpenen ordainketak ezingo ditu gaintitu ez (i) ekitaldiaren emaitza ez (ii) sei puntu baino gehiago diruaren legezko interesak.

Entitateko erabaki-organoek ezarriko dute interesen likidazio-aldizkakotasuna. Onetsitako, eta egun indarrean dagoen, maiztasunaren arabera, urtean behin egingo da ekitaldi ekonomiko baten emaitzei egotzitako interesen likidazioa, Rural Kutxaren Batzar Nagusiak ekitaldiaren emaitzak eta haien banaketa nahitaez onetsi ostean.

Nolanahi ere, hauek baldintzatzen dute ekarpenen ordaindu beharreko interesen ordainketa: (i) horiek asetzeko behar adina emaitza garbi edo erabilera libreko erreserba; azken kasu horretan, Espainiako Bankuaren baimena beharko da horretarako, bai eta dagokion gobernuko barne-organoaren onspena ere; (ii) Entitateak kaudimen-koefizientea eta legez ezarritako gutxieneko baliabide propioen kopurua estaltzea.

3.7. Amortizazioa

Batzar Nagusiak, Kontseilu Errektoreak hala proposatuta, ekarpen berrien jaulkipen baten edo gehiagoren amortizazioa erabaki ahalko du; bazkide bakoitzari zenbatekoa nola eta noiz itzuliko zaion ezarri beharko da erabakian.

3.8. Eguneratzea

Kapital sozialera gehitutako ekarpenak balantzen erregulazioari buruzko arauen babesean baino ezin izango dira eguneratu, kreditu-kooperatibak erregulatzeko dituzten arauak ezarritako muga eta betekizun gehigarriak beteta betiere.

4. ENTITATEAREN EKARPENAK EROSI AHAL IZATEKO BETEKIZUNAK

Entitateko bazkide izan beharko du Entitatearen ekarpenak erosi nahi dituenak, edota estatutueta ezarritako gehieneko epeetan izaera hori lortu.

Hala pertsona fisikoak nola juridikoak, publikoak zein pribatuak, izan ahalko dira bazkide, baita ondasun-komunitateak ere, Entitatearen estatutuek eta indarreko legediak ezarritako muga eta betekizunekin bat.

5. EKARPENAK EROSTEO MODALITATEAK

Honela erosi ahalko dira ekarpenak:

Ekarpenak harpidetuz, jaulkipena onetsi ondoren. Bai Batzar Nagusiak, bai Kontseilu Errektoreak erabaki ahalko dute kapital sozialerako ekarpenak jaulkitzea; gehieneko zenbatekoa guztira, baldintzak, harpidetza-aldia eta haien interes-tasa ezartzeko modua ezarriko dituzte. Harpidetzean ordaindu beharko dira, guztiz, aipatutako ekarpenak, eta handik aurrera parte hartuko duen kapital sozialaren iraunkortasun bera izango dute. Ezarritako harpidetza-aldia igarota, ekarpenen gehieneko zenbatekoa guztira bazkideek egiazki harpidetutakora murriztuko da automatikoki.

Ekarpenak erosiz, estatutueta ezarritakoarekin bat.

Bazkide interesatuak izenpetu beharreko eskaera-agiria beteko da ekarpenen erosketa/harpidetza tramitatzeko, Entitateko edozein bulegotan. Estatutuek ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatuko da eskaera izapidetu baino lehen.

6. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

Bazkideek Entitatearen estatutueta eta indarreko araudian jasotako eskubideak dituzte; ekarpenei lotutako hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- a) Beren ekarpenari dagokion zenbatekoa jasotzeko, Entitatean baja ematen badute edo Entitatea desegiten bada, estatutueta ezarritakoarekin bat.
- b) Kapital sozialerako beren ekarpenei dagozkien interesetan parte hartzeko, hala balegokio.
- c) Bazkide bakoitzak boto bat emateko eskubidea izango du atxikita dagoen prestamen-batzarrean, estatutueta ezarritako salbuespenetan izan ezik.
- d) Entitateko bazkideen erantzukizuna, Entitateak bere gain hartutako obligazioak direla eta, ekarpen sozialek araudi aplikagarriaren arabera duten baliora mugatuko da.
- e) Baja emandako bazkideak eta bere eskubidedunek beren ekarpenen itzulketa eskatu ahalko dute, ekarpenak itzultzeari buruzko erregulazioarekin bat (geroago zehaztuko da).
- f) Kontseilu Errektoreari kooperatibaren bilakaerari buruzko informazioa eskatzeko eta jasotzeko, batez ere beren eskubide ekonomiko edo sozialei buruzkoa, kooperatibaren helbide sozialean aurkeztutako idatzi baten bidez. Eskaera jaso eta hogeita hamar (30) eguneko epean, gehienez, eman beharko du Kontseilu Errektoreak informazioa, idatziz, edota jakinarazi, epe berean, egingo den hurrengo Batzar Nagusian emango duela informazioa, gaia interes orokorrekoa dela jotzen badu (gai-zerrendan sartuko da).
- g) Batzarraren mende jarriko diren dokumentuak aztertzeko, helbide sozialean eta Entitateko bulego guztietan, batzarra deitu eta egin bitarteko aldian, batez ere urteko kontuak, kudeaketa-txostena, emaitzak banatzeko proposamena eta auditoretza-txostena.

7. BAZKIDEEN OBLIGAZIOAK

Bazkideek Entitatearen estatutueta eta indarreko araudian xedatutako obligazioak dituzte. Ekarpenei dagokienez, gutxieneko ekarpenak harpidetu eta ordaintzeko obligazioa dute, baita harpidetutako

ekarpenak ordaintzeko ere, harpidetu balitu; ekarpenak ezarritako epeetan ordainduko ez balituzte, arau-hauste oso larritzat joko litzateke.

Halaber, bazkide izateak Entitateak garatzen dituen jarduera kooperatibizatuetan parte hartzea dakar, bere estatutuetan ezarritako gutxieneko zenbatekoan; zehazki, estatutuen 11.3 artikulua xede sozialaren ondoriozko jarduera eta zerbitzuetan parte hartzeko obligazioa ezarri eta partaidetza-modulu hau zehazten du: kontu bat ireki, edozein modalitatetan, eta gutxienez 60,11 euroko saldoa mantentzea batez beste urtean, pertsona fisikoen kasuan, eta gutxienez 120,21 eurokoa, pertsona juridikoen kasuan.

8. EKARPENEN ESKUALDATZEA

Kapital sozialerako ekarpenak honela eskualdatu ahalko dira.

- a) *linter vivos* egintzen bidez, bazkideen artean eta operazioa egin ondorengo hiru hilabeteetan bazkide-izaera lortuko dutenei; eskualdatzea ez da gauzatuko betekizuna bete arte.

Kontseilu Errektoreak ez balu iritzi espresurik emango horri buruz aipatutako epea iritsi aurretik, eskualdatzeak betekizunak betetzen dituela ulertuko da.

Entitateko bazkide batek dituen ekarpenak Entitateko edozein bulegoren bidez eskualdatu ahalko dira. Horretarako dagoen agiria bete beharko du, zeinaren bidez salmenta-eskaera tramitatzeko eskatzen baitzaio Entitateari, erosteko interesa duen beste bazkide bat edo hirugarren bat aurkitze aldera. Ekarpeneren nominalaren truke egingo dira eskualdatzeak, eta bazkide eskatzaileak zehaztutako kontuan ordainduko dira. Ekarpenei sortutako interesak, sortu balira, bazkidea haien titularra izandako denboran proportzionalki ordainduko dira, konturako ordainketa gisa.

Mortis causa eskualdatzeetan, aldiz, eskubidedunak Nafarroako Rural Kutxako bazkide izatea eskatu ahalko du, bazkide izango ez balitz, sei (6) hilabeteko epean, baldin eta horretarako betekizun objektiboak betetzen baditu.

- (i) Zuzenbidedun bakarra balego, Entitateko kide izatea eskatu ahalko du, sei (6) hilabeteko epean, baldin eta estatutuek ezarritako betekizun objektiboak betetzen baditu, [27/1999 Legearen 13] artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zuzenbidedunak bazkide izatea eskatuko ez balu ezarritako epean edo, eskatuta ere, Entitateak ukatuko balu, kausatzailearen ekarpen sozialaren likidaziorako eskubidea izango du; kausatzailea hil eta urtebeteko epean, gehienez, ordainduko zaio likidazioa, inolako kenkaririk gabe.

- (ii) Zuzenbidedun bat baino gehiago baleude, Entitateak exijitu ahalko du bazkide-izaera eskatzeko eskubidea haietako bakar batek ala gehiagok gauzatzeko, gainerakoen adostasun espresuarekin azken kasu horretan; adostasunik ez balego, goiko atalean ezarritako moduan egingo da likidazioa.

- (iii) Halaber, eskubidedun guztiak bazkide gisa onartzea erabaki ahalko du Entitateak; orduan, hainbanatu egingo da kausatzailearen ekarpena, legearen arabera proportzioan. Bazkide gisa onartutako eskubidedun bezainbeste ekarpen eraturiko dira, eta, haiek guztiak edo haietakoren bat Entitateak bazkide bakoitzari exijitutakoa baino txikiagoak balira, osatu egin beharko dira ezinbestean. Erregimen bera beteko da eskubidedunetako batzuek bazkide-izaera eskatzeko eskubidea gauzatu nahiko balute, edota ezingo balute bazkide-izaera izan estatutuek ezarritako betekizun objektiboak betetzen ez dituztelako. Zuzenbidedun batek, edo batek baino gehiagok, gutxieneko ekarpena osatu beharko balu, aipatutako [27/1999 Legearen 46] artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da aldeari dagokionez.

- b) Entitateak bere ekarpenak erosiko balitu edo bahi gisa edo beste berme-moduren batean onartuko balitu, Entitatearen estatutuek eta kreditu-kooperatibak erregulatzen dituzten arauak ezarritakoaren arabera jokatu da.

9. EKARPENEN DIRU-ITZULKETA

Indarreko legedian eta Entitatearen estatutuetan ezarritako muga eta betekizunekin bat itzuliko dira ekarpenak, Kontseilu Errektoreak alde zuzenetik baimena emanda. Egin ahal izateko, beharrezkoak izango dira gutxienezko kapital sozialaren nahikoa estaldura, erreserbak eta kaudimen-koefizientea edo aplikatu daitezkeen beste edozein koefiziente.

Bazkide-izaera galtzen badu, bazkideak edo bere eskubidedunek beren ekarpenak itzultzea eskatzeko eskubidea izango dute; baja egin den ekitaldiaren itxiaren arabera likidatuko dira ekarpenak. Bazkideari egotzi dakizkiokeen galerak, baja egindako ekitaldiaren itxieran balantzean islatutakoak, kenduko dira ekarpenen zenbatekotik, baja egin zen unean, hala ekitaldi horretakoak nola beste ekitaldi batzuetakoak, baldin eta ez badira konpentsatu ondorengo ekitaldien emaitza positiboekin, erreserba boluntarioekin edo Derrigorrezko Erreserba Funtzarekin.

Kontseilu Errektoreak hiru (3) hilabeteko epea, gehienez, izango du, bazkideak baja egin duen ekitaldiaren kontuak onetsi ziren datatik aurrera, kapital sozialerako ekarpenetatik kentzeko zenbatekoa kalkulatzeko; haren berri eman beharko zaio bazkideari. Bazkidea ados ez balego erabaki horren emaitzarekin, Estatutuaren ezarritako prozedurari jarraiki aurka egin ahalko du.

Diruz itzultzeko epea bost (5) urtekoa izango da, gehienez, bajatik aurrera, edo urtebetekoa, bazkidea hil bada; eskubidea izango du diruaren legezko interes-tasa jasotzeko ez ordaindutako ekarpenaren zenbatekotik, eta urtero ordainduko da, diruz itzuli beharreko zenbatekoaren bostenarekin batera, gutxienez.

10. EKARPENEN ARRISKU-FAKTOREA

10.1. Epemuga mugagabea

Ekarpenek, Entitatearen kapital sozialaren zati osatzailea baitira, ez dute epemuga mugaturik, eta, ondorioz, ez dago data jakin bat bazkideari ekarpenen nominala diruz itzultzeko. Edonola ere, bazkideek beren ekarpenen itzulketa eskatzeko eskubidea dute, edozein unetan, indarreko araudian eta Entitatearen estatutuaren ezarritako mugen barruan beti ere, aurreko atalean zehaztu bezala.

Aipatu beharra dago, indarreko legediarekin eta Sozietatearen estatutuarekin bat, Kontseilu Errektoreak ukatu egin lezakeela baldintzatzaile gabe ekarpenen diru-itzulketa, baldin eta gutxienezko kapital sozialaren nahikoa estaldura, erreserbak eta kaudimen-koefizientea ez baleude, besteak beste.

10.2. Kotizazio-eza Likidezia mugatua

Ekarpenek, ez baitira balio negoziagarriak Balio-merkatuari buruzko 24/1988 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako (hau da, ez daude MIFIF araudiak eta ECC/2316/2015 Aginduak ezarritako betekizunen mende), ez dute kotizatzen eta ez dira negoziatzen ezein merkatu antolatutan, eta, ondorioz, likidezia mugatua dute, aurreko 10.1 atalean ezarritakoaren kalterik gabe.

10.3. Kreditu Entitateen Gordailuen Berme Funtzaren estaldura-eza

Ekarpenak ez dira banku-gordailutzat jotzen, eta, horregatik, ez dute Kreditu Entitateen Gordailuen Berme Funtzaren estaldura.

10.4. Interesak ez jasotzeko arriskua

Hauek bete beharko dira interesak ordaintzeko:

- a) Entitatearen dagokion gobernuko barne-organoaren onespena;
- b) emaitza garbiak lortzea edo estaltzeko nahikoa erreserba izatea; erreserbak erabiliko balira interesak ordaintzeko, Espainiako Bankuaren baimena beharko da ezinbestez; eta
- c) nahikoa baliabide propio izatea, une bakoitzean aplikatu beharreko banku-araudiarekin bat.

10.5. Galerak xurgatzeko arriskua

Entitateak galerak izango balitu, baliteke bazkideek haiek estali behar izatea; horretarako, murrizketa portzental eta berdina egingo litzateke ekarpen guztietan.

10.6. Balizko galera, Entitatea desegitearen prozedura baten esparruan

Kapitalerako ekarpenak, Entitatearen kapital soziala baitira, Entitatea 11/2015 Legeak aurreikusitako desegin-prozesuetakoren batean sartuko balitz ezarritako arauen mende daude; izan ere, pasibo onargarrizat jotzen dira barne-birkapitalizaziorako aipatu legearen ondorioetarako eta, beraz, bazkidearen titulartasunekoak diren ekarpen guztiak edo batzuk gal litezke.

11. EKARPENEN TITULARTASUNAREN AKREDITAZIOA

Kapital sozialerako ekarpenak korrelatiboki zenbatutako titulu izendunetan akreditatzen dira. Entitateak behar bezala eta egunean darama Kapital Sozialerako Ekarpenen Erregistro Liburua, besteak beste, non aipatu ekarpenen titular eta zehaztasunak jasotzen baitira.

12. FISKALTASUNA

Ekarpenen ordainketa kapital higigarriarekin etekintzat jotzen da, zeinari indarreko araudiaren arabeko atxikipen-tasa aplikatuko baitzaio.

13. BESTELAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Urteko kontu osoak eta azken ekitaldietako auditoretza-txostena, baita bestelako informazio finantzario garrantzitsua eta gobernu korporatibokoa, Entitatearen webgunean daude eskura.